

EZAUGARRIEN KOADROA

KONTRATAZIO ORGANOA

Zuzendari nagusiak edo Administrazio Kontseiluak berak, edo beste batzuek, hala dagokionean eta zuzenbide pribatuko arau aplikagarrieekin bat etorritik, egoki irizten dieten pertsonen berariazko ahalmena eman ahalko diete, kontratuari dagozkion jarduerak zehatzak egikaritzeko.

A) KONTRATUAREN XEDEA.

Euskalduna Jauregia, Palacio Euskalduna, S.A.rentzako obra betearaztea eta igogailu bat hornitzea, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko arautegira egokitzeke, DALCO irizpideen arabera.

B) LIZITAZIOAREN GEHIENEZKO OINARRIA

| | |
|---|-------------------------|
| | Zenbatekoa, BEZ gabe |
| Igogailu baten obra eta hornidura, eta berau ingurune irisgarritara egokitzea, DALCO arauen arabera | 89.000 € |

C) GAUZATZE EPEA

Kontratua betearazteko (obra betearaztea eta abian jartzea) gehienezko epea 11 astekoa izango da; Euskaldunaren jarduna dela-eta, **2016ko ekainaren 27tik irailaren 11ra** egin beharko da.

D) ESLEITZEKO MODUA

Irekia, Euskaldunaren kontratazioko barne-jarraibideekin bat etorritik. Jarraibideek web helbide honetan daude: www.euskalduna.net.

E) PROPOSAMENAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EGUNA

Euskaldunako instalazioak: Abandoibarra 4, 48011 BILBAO.
2015eko abenduaren 21eko 12:00ak baino lehen.

Oharra:

Instalazioak bisitatzea ezinbesteko baldintza izango da enpresek lizitazioan parte hartu ahal izateko.

2015eko abenduren 9a (09:00etan) finkatu da instalazioetara bisita egiteko.
(S Atala. Ezaugarri koadro honen oharra)

F) KAUDIMEN EKONOMIKO-FINANTZARIOAREN EGIAZTAGIRIAK

- Azken bi ekitaldietako kontuak, behar bezala kautotuta; halaber, enpresak kontuen kanpo-ikuskapenen bat egin baldin badu, ikuskapen horri buruzko azken txostena, salbuespenik eta aparteko kasurik gabe, behar bezala kautotuta.
- OOEko fitxategi eguneratuen agiria, finantza-erakunde batek ikus-onetsita, edo finantza-kaudimenaren egiaztagiria, lizitazioa argitaratu ondorengo datarekin.

G) BERMEAK

Berme hauek ezarri dira:

| | |
|--------------------------|-------------------------------------|
| BEHIN-BEHINEKO BERMEA | Lizitazio oinarriaren %2, BEZ gabe |
| BEHIN BETIKO BERMEA | Esleipen zenbatekoaren %5, BEZ gabe |

H) PREZIOEN BERRIKUSPENA

Ez dago

I) KAUDIMEN TEKNIKOAREN EGIAZTAGIRIAK ETA, HALA BADAGOKIO, KONTRATISTAREN SAILKAPENA.

- Kalitatea eta ingurumena bermatzeko sistema bat ezarri izanaren ziurtagiriak, indarrean eta erakunde baimendun batek emandakoak, UNE-EN-ISO 9001 eta 14001 arauen arabera.
- Laneko segurtasuna eta osasuna kudeatzeko OHSAS 18001 arauaren arabeko sistema ezarri izanaren ziurtagiriak, indarrean eta erakunde baimendun batek emandakoak.
- Dagozkion curriculumak edo enpresa-ziurtagiriak aurkeztea, kontratuaren xederako jardungo duten langileek behar besteko kualifikazioa eta antzeko lanetan gutxienez 5 urteko esperientzia dutela frogatzeko.
- Lanak betearazteko izendatutako langileek laneko arriskuen prebentzioaren arloko prestakuntza dutela egiaztatu beharko dute.
- Enpresa esleipendunaren konpromisoa, obraren %20 baino gehiago ez azpikontratatzeko.
- Obren enpresa Kontratatistaren sailkapena; zerbitzuari dagokion tresna mota dela-eta, enpresa esleipendunak sailkapen hauek izan behar ditu: C-04-D, C-09-D eta J-01-E.
- Instalazioen Bisita ziurtagiria, Euskalduna Jauregiko arduradunek sinatuta eta zigilatuta.

J) AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Lizitazaileak agiri hauek aurkeztuko ditu:

- Kaudimen tekniko eta finantzarioa betetzen dela egiaztatzen duen dokumentua.
- Kontratua betearazteko moduari dagokion memoria metodologikoa, Baldintza Teknikoen Orrian jasotzen diren zehaztapenen arabera. Esku-hartzearen ezaugarriak zehaztu behar dira, esku-hartzearen ezaugarriak adieraziz:
 - Gauzatu beharreko lanen xehetasunak eta plangintza, kontuan hartuta Euskaldunako jarduera modu normalean gauzatu behar dela, berariaz adierazita gaez edo jaiegunetan lan egiteagatiko areagotzerik izango den.
 - Proposatutako materialen kalitatea eta kontratura bideratutako baliabide materialak.
 - Igogailu berria gaur egun dauden kudeaketa-sistemekin bateratzeko prozesuaren xehetasunak, kontuan izanda ezin direla horren prestazioak aldatu, ez eta Euskalduna Jauregiko gainerako instalazioak aldatu eta kontrol-gunean ekipo gehigarriak jarri ere.
 - Betearazpenaren xehetasunak; proposatutako itxitura, horren betearazpenaren eta materialen xehetasunarekin; obraren seinaleztapena eta abar.

Txostenak, gehienez, DIN A-4 formatuko 20 orri izango ditu, orrialde bakarrean idatzita 12 tamainako Arial letrarekin.

- Lanak betearazteko epea: konpromisoa betearazpenerako gehienezko epearekin eta lan-plangintzarekin.
- Igogailu berriarentzat eskaintako berme osoaren epea.

K) ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Hauek dira esleitzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak:

55 puntu: eskaintza ekonomikoa.

%0 eta %15 arteko deskontuak era proportzionalen baloratuko dira, eta gehienez **45 puntu** emango dira. Oinarriaren pareko eskaintzari 0 puntu emango zaizkio, eta %15eko edo hortik gorako deskontua proposatzen duen eskaintzari, berriz, 45 puntu.

%15etik gorako deskontuak era proportzionalen baloratuko dira, eta gehienez **10 puntu** emango dira. %15eko deskontuaren pareko eskaintzari 0 puntu gehigarri emango zaizkio, eta hortik gorako deskontua proposatzen duen eskaintzari, berriz, 10 puntu. Gainerako proposamenak era proportzionalen baloratuko dira.

Puntuak banatzeko formula:

1. Lizitazaileak egindako deskontua %15ekoa edo hortik beherakoa bada:

$$\text{Puntuak} = 45 \times \frac{\text{Eskaintzaren deskontua}(\%)}{15}$$

2. Lizitazaileak egindako deskontua %15ekoa baino handiagoa bada:

$$\text{Puntuak} = 45 + \left[\frac{10 \times (\text{Eskaintzaren deskontua}(\%) - 15)}{(\text{Onartutako gehienezko deskontua}(\%) - 15)} \right]$$

5 puntu: bermearen epea.

Puntuazioa emateko, puntu bat esleituko da 2 urteko berme derrigorra gainditzen duen urte bakoitzeko; gehienez ere 5 puntu emango dira.

32 puntu: metodologia-txostenaren kalitatea, honako ataletan duen xehetasun mailari erreparatuta:

- Gauzatu beharreko lanen xehetasunak eta plangintza, kontuan hartuta Euskaldunako jarduera modu normalean garatu behar dela: 12 puntu.
- Proposatutako materialen kalitatea: 6 puntu.
- Igogailu berria gaur egun dauden kudeaketa-sistemekin bateratzeko prozesuaren xehetasunak: 7 puntu.
- Proposatutako itxitura betearazteko xehetasunak, betearazpenaren eta materialen xehetasunak, obraren seinalaztapena eta abar: 7 puntu.

Aurreko irizpideak behar bezala baloratzeko, eskaintzetan proposamenak banakatu beharko dira, aurreko 4 atalen arabera.

8 puntu: betearazpen epea

2 puntu esleituko dira, betearazpena amaitzeko eta zerbitzua abian jartzeko aurreikusitako epean aurreratutako aste oso bakoitzeko; gehienez ere 8 puntu emango dira.

L) ZIGORREN ZENBATEKOA

Proiektuaren %5eko zigorra ezarriko da, eskaintzan hitzartutako dataren gainean izandako atzerapeneko aste bakoitzeko, edo haren zati alikuota, gehienez proiektuaren guztizkoaren %25era arte.

M) ESKATZEN DIREN ASEGURUEN KONTRATUAK

Erantzukizun zibileko poliza, gutxienez 2.000.000 eurokoa ezbeharreko eta urteko.

N) FAKTURAZIOA ETA ORDAINTZEKO ERA

Kontratu honen xede diren lanak instalazioa jaso ostean ordainduko dira. Instalazioa jasotzeak esan nahi du betearazitako lanei dagokien adostasun-akta egitea, Euskaldunaren zuzendaritza teknikoak behar bezala onartuta.

Ordainketa confirming bidez egingo da, faktura egin eta 30 egunera.

O) KONTRATUA DESEGITEA.

Eskaini diren baldintzak eta ezaugarriak modu nabarmenean betetzen ez direnean, esleipenduna jakinaren gainean jarriko da. Gabezia horiek astebeteko epean konpontzen ez badira, Euskalduna Jauregiak kontratua suntsiarazi ahalko du.

P) BETEARAZPEN EPEA

Gutxienez 2 urteko berme-epea ezartzen da kontratu honen xederako.

Q) ALDAKETAK ONARTZEA.

Ez da aldaketarik onartuko eskaintzan.

R) ESLEITZEKO PROZEDURARI BURUZKO INFORMAZIOA

Kontratatzaillearen profila: Webgunea: www.euskalduna.net

Telefona: 944035000.

Info@euskalduna.net

S) OHARRAK

2015eko abenduren 9a (09:00etan) finkatu da instalazioetara bisita egiteko.

Instalazioak bisitatzeko ezinbesteko baldintza izango da enpresek lizitazioan parte hartu ahal izateko. Instalazioak bisitatzeko interesa duten enpresek horren berri eman beharko dute abenduaren 4ko 14:00ak baino lehen, bisitaren eguna zehazteko; horretarako, mezu elektronikoa bidali beharko dute info@euskalduna.net helbidera, enpresaren izena adierazita, bai eta Erakundetik joango diren pertsonen izenak ere.